

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

**ZATI KOMUNA
2024KO DEIALDIA**

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25 koa

23/05/2024

EUSKAL HIZKUNTZA

EPAI MAHAIA ZBKº:

KALIFIKAZIOA

DEITURAK:

IZENA:

NANa/AIZ:

Traktoreak

Aztoratuta dabilta Europako nekazariak. Aditza ez dut kasualitatez erabili. Aztorea inguruetan hegan sumatzean jotzen dute txitek, ezin egonda, kolkoaren babesera. Gazteleraz ere «azorarse» horixe da: harrapakaria gertu sumatzean txorikumeari gertatzen zaiona. Gure heriotza, zuen gosea dioen lelo aztoragarria ere sumatu dugu laborarien eskuetan.

Arrazoi dute. Beraiek inoiz baino diru gutxiago irabazten duten bitartean, guri gero eta garestiago iristen zaizkigu haien ekoizpenak. Askok dugu aztoratzeko motiboa. Norbaitek irabazten du, ordea, gehienok galtzaile garen partida honetan. Aztorerik ezean inor ez ginateke aztoratuko. Eta argi dago sistema ekonomiko honetan bitartekari askotarikoek jokutzen dutela harrapakari papera.

«Boniatoa jatera iritsiko gaituk berriz», esan zidan egoera goibel sumatzen duen pertsona nagusi batek. Gerraosteko urteetan boniatoa zen pobretasunaren paradigma, patatarik ere ez zuten kaletarren elikagaia. Ez nion esan boniatoa orain modan dagoenik. Pipertu egiten da festa eta gainerakoetan jendeak taloak jateko duen puria sumatzean. «Ez hituzke horrela ibiliko guk adina jan behar izan balute». Eta gero, nekazarien protesten, elikagaien salneurrien eta harrapakarien harira, «alimentu kiriki» aipatu zidan...

Andoni Egaña, *Berría*, 2024ko otsailaren 8a

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

**ZATI KOMUNA
2024KO DEIALDIA**

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25 koa

23/05/2024

EUSKAL HIZKUNTZA

- 1.- GAIA (1,5 p)**
- 2.- EGITURA (Eskematikoki) (2,5 p)**
- 3.- TESTU MOTA. Justifikazioa, 10 lerro gehienez. (2,5 p)**
- 4.- BALORAZIO KRITIKOA, 10 lerro gehienez. (2,5 p)**
- 5.- ZUZENTASUNA ETA ORTOGRAFIA (p 1)**

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

**ZATI KOMUNA
2024KO DEIALDIA**

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25 koa

23/05/2024

EUSKAL HIZKUNTZA

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA ETA GOI MAILAKO
ARTE IKASKETETAN SARTZEKO HELDUTASUN PROBA**

**ZATI KOMUNA
2024KO DEIALDIA**

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25 koa

23/05/2024

EUSKAL HIZKUNTZA